

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

**OSASUNA**

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hartutako kalte zerebrala dutenek, haien senideek eta profesionalak gaixotasunaren ondorioak gainditzeko gaitasuna aldarrikatu dute Ospitalegunearen jardunaldi batean

*Goizeko hitzaldi eta tailer ludikoetan Miguel Indurain txirrindularia izan da*

Osteguna, 2017.eko urriak 26

200 bat pertsona jardunaldi ludiko batean parte hartzen ari dira gaur Nafarroako D Ospitalegunean (Ubarmin), besteak beste, hartutako kalte zerebrala duten pertsonak, haien senideak eta gaixotasun horren tratamenduari lotutako profesionalak. Jardunaldi horretan, agerian jarri da gaixotasun hori dutenek ondorioak gainditzeko gai direla.



Hartutako kalte zerebrala dutenek, haien senideek eta profesionalak Miguel Indurainen babesa jaso dute.

Hartutako Kalte Zerebralaren Eguna gaur delako egin da jardunaldia. Gaur goizeko hitzaldi eta tailerretan Miguel Indurain txirrindulariak parte hartu du, eta animoa eman nahi izan die guztiei.

HKZ garun-lesio bat da, eta bat-batean agertzen da pertsonaren bizitzan, hainbat arazoirengatik, esaterako, garuneko infartua edo odoljariora (iktusa), kranio-entzefaloko traumatismoa, garuneko tumoreak edo oxigeno-falta eragiten duten egoerak (bihotzeko geldialdia, itotzea, karbono monoxidoagatiko intoxikazioa, eztarriko trabamendua edo arnas sistemaren beste asaldura batzuk).

### Gaurko jardunaldia

D Ospitaleguneko Errehabilitazio Neurologikoko Zerbitzuak sustatu du, Nafarroan erreferentziako zentroa baita hartutako kalte zerebrala duten gaixoei arreta ematen. Jardunaldian, garrantzitsutzat jo da zenbait jarduera ludiko antolatzea, «degaitasuna gainditzearekin eta gaixotasun horri egunero aurre egin behar dioten pertsonari laguntzearekin erlacionatutako alderdiak sustatzeko». Zerbitzuaren hitzetan, «gure helburua da hartutako kalte zerebralarekin bizi diren pertsonak eta haien familiak gizartean normalizatzea».

### Sukaldaritza-tailerrak, jokoak, kirol ugari eta dantza

Jardunaldia HKZ duten gaixoei eta haien senideei zuzenduta dago.

Programatu diren tailer eta hitzaldiak egunero era horretako gaixoekin lan egin behar duten fisioterapiako, terapia okupazionalako, logopediako eta gizarte-laneko profesionalak emango dituzte, errehabilitazioko, neuropsikiatriako eta neuropsikologiako medikuekin elkarlanean.

Ekitaldi-aretoan eman zaio hasiera jardunaldiari. Bi gaixok beren istorioa azaldu dute, bizimodu berri batera nola ohitu behar izan duten, eta HKZ duten gaixoen ipuinak, marrazkiak eta argazkiak aurkeztu dira. Ondoren, goizean zehar, 45 minutuko txandakako tailerrak egin dira, hainbat gairi buruzkoak: sukaldaritza, mahai-jokoak eta ordenagailukoak, kirol egokitua (dardoak, boleibola, etab.) eta dantza, baita zentzumenen tailer bat ere, testurekin esperimendatzeko edo eskulanak egiteko. Jardunaldiari amaiera emateko, HKZ duen MusicAvanza taldeko kide batek kontzertua emango du